

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko martxoaren 22a

✱



Altsasuko lehen Historia

■ Antzinako garaitik gaur egun arte Altsasuko historiaren hainbat datu biltzen duen lana bukatu berri dute Jose Amilibia altsasuarra eta Nicolas Arbizu iturmendiarrak, Eusko Ikaskuntzak eta Altsasuko Udalak si-

natutako elkarlanerako hitzarmenari esker. Burundako Unibertsitatea, hasierako herrixkak, gipuzkoarreko borrokak, pertsonaia historikoak... denak daude bilduak jaietarako argitaratu nahi duten lan honetan. ■

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Joan den igandean Beran jokaturako Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalerdiak jende anitz bildu zuen, uste baino dexente gehiago. Hori arrunt positibotzat jo daiteke, kontutan izanik oholza gainean zegoen zortzikotetik sei 21 urtetik behetikoak ginela, gazteak azken finean. Txapelketako edizio honetan inoiz baino gazte gehiagok parte hartu du, bederatzik hain xuxen; hamazazpitik bederatzik gazte, erdia baino gehiago, a ze marka!

Nafarroan tarteko belaunaldirik ez badago ere, hau da, 20 urtetik 40 urtera doan belaunaldia, bertsoa ez da horrekin batera desagertu. Lapsus horren ondotik, bertsolaritza berpiztu da, gazteek txanda hartu dute eta aurten ere txapelketan hiru aurpegi berri ikusi ahal izan ditugu, jarraipenari bide eginez.

Kontu-kontari

Honetaz guztiaz gain, aipatu gabe ezin utzi txapelketako bederatzik gazte horietatik lau emakumezkoak garela. Bertze hainbat gauzatan bezala, bertsolaritzan ere emakumea bere tokia egiten ari da eta hori nafar bertsolaritzaren mesederako ezezik, emakumeen borrokaren aitzinerapauso gisa nabarmenduko nuke. Saioko partaideak ere errealitateari erreferentzia egiten badiote oro har, saioko partaideak ere errealitate horri atxikitzea hagitik positiboa da, hots, zaharren ahotsa gazteenarekin batera aditzea, gizonetzkoena emakumezkoenarekin batera... Aberastasun handia dakar horrek, ideiak eta hauek adierazteko moduak bertsolari batetik bertzerera aldatzen badira anitzetan, are gehiago aldatzen baitira adin eta sexuaren arabera.

Igande honetan finala datorkigu, Goizuetatik hain xuxen. Hiru gazte ariko gara bertan eta horietatik bi emakumeak gara (Estitxu ere bai, kasualidadez). Bertze guziak beteranoak. Erakargarria izaten ahal dela uste dut, guziak beren maila erakusten badute, noski. Nafarroako bertsolaritzak ez du Gipuzkoakoaren maila bera, ezta Bizkaikoarena ere, horregatik ezin dira parametro beretan neurtu, ezin dira parametro beretan erkatu. Hala ere, uste dut Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala polita izaten ahal dela. Hori bai, aditzera joaten denak jakin behar du Gipuzkoako Txapelketako final on bat eta Nafarroako final on bat ez direla kalitate berekoak. Goizuetara doanak nora doan jakin behar du. Ea elkar ikusten dugun. ✕

✂ GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Iruña: Bolo Feroz argitalpenaren lehen urteurrena ospatzeko kontzertua eskainiko dute gaur gaueko 10.30etan Lagartija Nick, Escarabajos eta Balerdi-Balerdi taideek. Artsaiaren Musik Club aretoan izanen da kontzertua eta sarrerak 1.500 pezeta balio du.

Lizarra: El Ultimo de la Fila taldeak kontzertua eskainiko du bihar herriko kiroldegian. Sarrerak 1.800 pezeta jarriko dituzte salgai. Bihar ere Jose Antonio Labordetak abestuko du gaueko 10.00etan Gustavo de Maeztu museoa. Gaur, berriz, Patagoniak joko du Katxetas ostatuan, gaueko 11.00etan.

Zubiri: Gau Txori dantzalekuan Joselu Anaiak taldea izanen da bihar, goizaldeko 1.00ean.

ZINEMA

Tafalla: Cinema Españolen Haurrentzako Zinema Zikloa antolatu dute. Lehen emanaldia bihar arratsaldeko 6.00etan izanen da eta bigarrena, berriz, bihar arratsaldeko 3.45etan. Sarrerak 100 pezeta balioko du.

ANTZERKIA

Iruña: Txirristra antzerki taldeak Corre, corre... que te comolana aurkeztuko du igandean Nafarroako Antzerki Eskolan, arratsaldeko 6.00etatik aurrera.

Cascante: Gwynfyd taldeak *Sonidos de otros mundos* lana aurkeztuko du bihar, gaueko 10.00etan, zaharren egoitzan.

Zizur Nagusia: Kilkarrak taldeak *Jorjoli: un viaje con los cómicos de antaño* obra taularatuko du gaur Kultur Etxean, gaueko 10.00etan.

BERTSO SAIOA

Goizueta: Pilotalekuan XXV. Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala izanen da, igandean, arratsaldeko 16.30etan. Bertso kantari ariko dira: Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez, Bittor Elizagoien, Manolo Arozena, Jean Pierre Mendiburu, Xalbador, Kexux Arzallus eta Oskar Estanga.

ERAKUSKETAK

Burlata: Maria Pilar Frisonek Kultur Etxean zintzilikatu ditu bere koadroak. Erakusketa 19.00ak eta 21.00ak bitartean dago zabalik asteartetik larunbatera; igandean, berriz, goizean.

Iruña: Fernando Beorlegiren lanak Carlos III.a aretoan ikusgai dira hil honen 31ra bitartean. Asteleheneetik larunbatera bitartean zabalik da erakusketa, 19.00etatik 21.00etara. Igandean itxita dago.

nafarkronika

Fermin Erbiti

Prozesua ez da xedea

Edozein lantoki ofizialetan aritu diren guztiek badakite administrazioa sortzez eta izatez mantso-mantso ibiltzeko makina handia dela. Baten batek erritmoa arintzeko erran liezaioke, baina agindua alferrikakoa litzateke, makina horrek azkar ibiltzerik ez duelako. Segi dezala, beraz, bere betiko martxan baina, gutxienez, ez daitezela gerta presaka eta korrika ibili behar dutenei gertatzen zaizkienak.

Bertze modu batez erranen dut. Enpresa batean ordenadore berria behar badute, dendarra joan, dagoen eskaintza aztertu eta erosi egingen dute. Guztira pare bat ordu, dirua, faktura eta agur. Administrazioan, berriz, edozein huskeriak sekulako espedientea eskatzen du. Arduradunaren proposamena, administrazioaren baimena, interbentorearena, idazkariarena eta abarrena. Denak idatzirik, noski. Guztira hiru hilabete eta hogei orrialdeko espedientea.

Legez bete beharreko pauso horiek guztiak ez lirateke alferrikakoak baldin eta horiei esker Administrazioan den-dena ongi egingen balitz, baldin eta eskatu beharreko txosten, horiek biztanleriaren dirua behar den tokian eta behar

bezala gastatzen dela ziurtatuko baligute.

Gobernuak azken bolada honetan fiskalari igorri dizkion espedienteek, ordea, ez dute horrelakorik erakusten. Izan ere, edozein huskeriagatik espediente mardula egin beharrik ziurtatzen duen gauza bakarra da lantegi ofizialetan armairu oso handiak behar direla urtero egiten diren milaka txostenak gordetzeko.

Agintariek gerrikoa estutzeko garaia dela diote, dirulaguntzak murriztu behar direla. Konforme, baina bertze deus erabaki baino lehen baten batek barne kontrola areagotzeko neurriak har ditzala. Horrek ez du orrialde gehiagoko txostenik eskatzen, ezta funtzionario gehiagoren sinadurarik ere, argi frogatu baita txosten ederrenak iruzur handiena ezkututzen ahal duela. Guztion patriketatik ateratako dirua ongi gastatu dela ziurtatzea da xedea eta, horretarako, prozesua ez dela helburua gogoratu behar da.

Barne kontrola areagotuta administrazioak iruzur gehiago atzematen baditu, lehenbizi dirua berreskura dezala. Zer egin berreskuraturiko diruaz? Galdetu helduen euskalduntzean ari direnei.



asteko pertsonaiak



Carmen Olza Moja

Carmen Olza, 54 urte, Lizarrako Santa Ana ordenako moja nafarra, asteazkenean hil zen Muginan (Ruanda), mina batek bere autoaren azpian eztanda egin ondoren. Bizirik eraman zuten ospitalera baina medikuek ezin izan zuten salbatzeko deus ere egin. Carmen Olza Ruandako bertako beste bi mojekin batera zihoan autoan, Santa Anako ordenak Muginan duen etxerako bidean, istripua jazo zenean. Ezteandaren ondorioz bertan hil zen Ruandako mojetako bat, eta bestea, Carmen Olzarekin batera, zaurituta eraman zuten ospitalera. Eugin jaiotako moja nafarra gaur lurperatuko dute Kivumun (Ruanda), hori izan baitzen 1992. urtean Ruandara misiolari lana egitera joan zenean ezagutu zuen lehen herria. Lizarran ere bere aldeko hileta elizkizunak egingen dituzte gaur, arratsaldeko zortzietan, San Juan Bautista parrokian.



Maite Pascual NAEko zuzendaria

Maite Pascual Nafarroako Antzerki Eskolako (NAE) zuzendariak antzerkiarekin zerikusirik dufen ekitaldiak euskaraz garatzeko hitzarmena sinatu zuen asteazkenean Joaquín Pascual Iruñeko Udaleko Kultura zinegotziarekin. Akordioaren arabera, sei milioi eta erdi pezetako dirulaguntza jasoko du NAEk. Hitzarmenari esker, halaber, atzo hasi zen eta ekainean bukatuko den *Antzerki Aroa* antolatu du Nafarroako Antzerki Eskolak. *Antzerki Aroa*-ren barruan helduentzako sei antzerki obra taularatuko dituzte beste hainbeste antzerki taldek, euskaraz. Orain arte hurrei zuzendutako obrak baino ez ditu euskaraz eskaini NAEk.

ahaztu gabe!



HERRI KIROLAK

Leitza: Herri kirolen jaialdi interesgarria ikusteko aukera aparta izanen da igande honetan Leitza, arratsaldeko sei etatik aurrera. Hasteko Mikel Saralegi Leitza harrijasotzailea 323 kiloko harria altxatzen saiatuko da berriro. Saralegi Euskadiko Sei Orduetan saiatu zen azkeneko berak ezarritako errekorra hobetzen baina ez zuen lortu. Harria jaso eta gero irristatu eta besoetatik ihes egin zion bere saioa hutsean utziz. Igande honetan bere bizilagunak izanen ditu ondoan, Jose Antonio Gisasola Zelai ere bere errekorra ontzen saiatuko da igandean. Horretarako, bost minututan 26 aldiz baino gehiagotan altxatu behar du 138 kiloko harria.

Aizkolariak ere zererranik izanen dute igandeko saio honetan. Larretxea eta Olasagastik, hain zuzen, apustua egingo dute, zortzi kanaerdi zeinek lehenago ebaki. Lehia polita ikusteko aukera izanen dute, zalantzarik gabe, bertara hurbildutakoek. Aizkolarien artean ezezik, bi sokatira taldeko kideen arteko lehia ikusteko aukera ere izanen da Leitza. Aresoko taldea Iparraldeko txapeldunen aurka ariko dira.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, Zokobetailu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara Gauza guztien gaitik, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Burlata

Haur Kantarien Txapelketako saioa

Hiru bakarlari eta hamahiru talde ariko dira lehian bihar Elizgibela kiroldegian

Hil honen 9an abiatu zen Nafarroako Haur Kantarien Txapelketaren hirugarren saioa bihar egingen dute Burlatako Elizgibela kiroldegian, arratsaldeko lau eta erdietatik aurrera. Goizueta, Lekunberri, Tafalla, Lizarra, Atarrabia eta Burlatako bertako haurrek hartuko dute parte biharko saioan.

Erredakzioa / Iruñea

AURTENGO Nafarroako Haur Kantarien Txapelketa orain bi aste, hil honen 9an, abiatu zen Barañainen.

Lehenengo saio horren ondoren bigarrena burutu zen joan den asteburuan Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan. Nafarroako Haur Kantarien Txapelketako bigarren saio hau arrakasta handiz burutu zen antolatzaileek aditzera eman dutenez, «bai ikusleen aldetik —500 lagun inguru bildu ziren Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan—, baita kalitateari dagokionez ere».

Bihar, berriz, hirugarren saioa egingen dute Burlatako Elizgibela kiroldegian, arratsaldeko lau eta erdietatik aurrera. Burlatan, bertako, Goizueta, Lekunberri, Tafallako, Lizarrako eta Atarrabiako haurrak ariko dira lehian.

Hiru bakarlarik eta hamahiru taldek hartuko dute parte hirugarren saio honetan.

Goizueta bi taldek hartuko dute parte Burlatako saioan. Lehenengoak Txatxo kantua abestuko du. Bigarren taldearen kan-



Burlatan izanen da bihar Haur Kantarien Txapelketako hirugarren saioa.

ARTXIBOKOA

tua zehazteke dago. Goizueta Irati Arozenak, halaber, Goizueta izeneko kantuarekin hartuko du parte.

Burlatetik bertatik, Ermitaberriri ikastolako bi talde eta bakarlarik bat ariko dira lehian. Lehen taldeak Kanuto abestiarekin hartuko du parte Nafarroako Haur Kantarien Txapelketan. Bigarren taldearen abestia zehazteke dago. Selva Baron bakarlarik, berriz, Euskera, oi euskera kantatuko du.

Lekunberri dagokionez, Txantxariak taldeak Maria Andresen korotza abestuko du Bur-

latako Elizgibelan. Tafallako ikastolatik ere Akelarre taldeak hartuko du parte bihar egingo den saioan, Iluntzean izeneko kantuarekin.

Lizarrak, azkenik, bi talderekin hartuko du parte txapelketan. Su Txinpertak taldeak, lehenik, Ea topatzen zintudan abestia ere aukeratu du. Zurrumbilo Alaiak, aldiz, Orain, nahi eta ezina abestuko du.

Biharko saioan parte hartuko duten talde eta bakarlariek artean hoberenak aukeratu beharko dituzte epaimahaiko kideek saio nagusian kantatzeko. X

Burlatako Elizgibelan. Tafallako ikastolatik ere Akelarre taldeak hartuko du parte bihar egingo den saioan, Iluntzean izeneko kantuarekin.

Lizarrak, azkenik, bi talderekin hartuko du parte txapelketan. Su Txinpertak taldeak, lehenik, Ea topatzen zintudan abestia ere aukeratu du. Zurrumbilo Alaiak, aldiz, Orain, nahi eta ezina abestuko du.

Biharko saioan parte hartuko duten talde eta bakarlariek artean hoberenak aukeratu beharko dituzte epaimahaiko kideek saio nagusian kantatzeko. X

Lekunberri

Lasterketak jaun eta jabe igandean

Lekunberriko Legoa eta Etxauriko Krosa proba arras ezagunak prest dira etzi eguerdian jokatzeko

Erredakzioa / Iruñea

LARRAUN kirol elkarteak Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren laguntzaz antolatuta, igande honetan egingen dute Lekunberriko Legoa lasterketa ezaguna, eguerdiko hamabi eta erdietatik aurrera. Hasierako urteetan bertako korrikalariak baino ezin zuten parte hartu Lekunberriko Legoan. Baina arauak aldatu eta orain dela zortzi urte nahi duen guztiarentzat zabaldu zuten lasterketa hau antolatzaileek.

Lekunberriko Legoaren aro berri honetako zortzigarren ekitaldia ospatuko dute, beraz, igande honetan.

Ilargi ostatuaren ondoan emango diote hasiera Lekunberriko Legoari eguerdiko hamabi eta erdietan. Bertatik atera eta

240. errepide nazionaletik Azpirozko Zia Etxeraino abiatuko dia korrikalariak, eta ondoren Irteera lekura itzuliko dira. Sei kilometroko ibilbidea egin beharko dute osotara Lekunberriko Legoako partehartzaileek.

Parte hartu nahi duen orok ilargi ostatuan bertan eman behar du izena lasterketa hasi baino lehen.

Etxaurin ere korrikalariak izanen dira protagonista igande honetan, goizeko hamaiketatik aurrera. Denak Bat kirol elkarteak, hain zuzen, Etxauriko Krosa antolatu du iganderako. Parte hartu nahi duenak lasterketa hasi baino bost minutu lehenago arte izanen du izena emateko aukera elkartearen egoitzan bertan.

Antolatzaileek sari ugari banatuko dituzte partehartzaileen



Tradizio handiko lasterketak dira Lekunberrikoa eta Etxaurikoa.

ARTXIBOKOA

artean: lehen, bigarren eta hirugarren korrikalariarentzat, lehen emakumearentzat, lehen gaztearentzat (1982. urteaz geroztik

jaiotakoak), bertako lehen sailkatuarentzat, korrikalaririk gazteenarentzat eta zaharrenarentzat. X

Bera

Txotxongillo taldeak 'Erreka Mari' lana aurkeztuko du bihar Berako Kultur Etxean

25. urteurrena du aurten Enkarni Genuak eta Manolo Gomezek osatutako talde donostiarrak

Jon Abril / Bera

BIHAR larunbata, arratsaldeko bost eta erdietatik aitzina Berako Kultur Etxean Enkarni Genuak eta Manolo Gomezek osaturiko Txotxongillo taldearen Erreka Mari lana ikusgai izanen da.

Txotxongillo talde donostiarrak bere 25. urteurrena du aurten. Urtea hasi zenetik, ekitaldi bereziak prestatu ditu eta horien artekoa da Berakoa.

Euskal Herriko azken lamiaren istorioa kontatzen du Erreka Mari-k. Txotxongillo taldearen lan honek, lamiak bizirik irauteko dituen arazoak islatzen ditu, erreken kutsadura baita lamiak akabatu dezakeena.

Baina urteetan taldearen lanik adierazgarriena izan den arren, Erreka Mari ez da Txotxongillo taldeak plazartu duen bakarra izan. 25 urte hauetan, orotara 21 lan estreinatu ditu Txotxongillo taldeak eta 1.500 emanalditik goiti eskaini ditu Euskal Herrian zein hemendik kanpo ere.

Hego Amerikan, Erdialdeko Europan eta penintsulan ibili da batik bat Euskal Herrikan kanpo atera denean, sariketa zein antzerki edo txotxongilo erakustaldietan. Gure artean, noski, aski ezagunak dira Txotxongillo taldeak 25 urte hauetan sortu dituen pertsonaia berezi eta ezberdin guztiak.

Txotxongillo taldeak haurrentzat egin duen lanaren garrantzia, antzerkigintzaz haratago doa. Hogetik goiti liburu eta disko argitaratu dituzte, euren lanak ipuinen bidez edo grabatuta azaltzen dituztenak.

Azkenak oraindik orain kaleratu dituzte, ospatzen ari diren 25. urteurrenaren inguruan, euren lanik garrantzitsuenak biltzen dituen 25 urte zuekin liburuan eta diskoan.

Bihar arratsaldeko bost eta erdietatik aurrera Kultur Etxean ikusi ahal izanen den ekitaldi hau Berako bi taldek antolatu dute elkarrekin, Kaxerna Aisialdi Taldeak eta Lamixine Bat antzerki taldeak, hain zuzen ere.

Euren ekimenari esker Berako haurrek eta baita helduek ere Txotxongillo taldearen 25. urteurrena ospatu ahal izanen dute, eta, era berean, Erreka Mari haren pertsonaiaren istorioarekin gozatu. X

Apaizak demokratikoki hautatzen zituztenekoak

Altsasuko historiari buruz ikerketa lan monografikoa egin dute Jose Amilibiak eta Nicolas Arbizuk

Altsasu. Gure herriaren kronika historikoa laster kaleratuko du Burundako herriko udalak. Jose Amilibiak eta Nicolas Arbizuk egin berri duten ikerketa oinarritzat hartuz. Lan hau Iruñeko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak iaz sinatutako elkarlanerako akordioaren lehen emaitza da, eta bertan biltzen dira herriaren historia, garapen demografikoa, pertsonaiak eta hainbat bitxikeria.

Alberto Barandiaran / Iruñea

EUSKO IKASKUNTZAK eta Iruñeko Udalak iaz sinatutako elkarlanerako hitzarmenaren lehen fruitua da Jose Amilibiak eta Nicolas Arbizuk eginiko monografiko hau. Bi erakundeek lana egiteko beka osatu zuten, eta aurkeztutako bost lanen artean hau aukeratu zuten. 250.000 pezetakoa (10.000 libera inguru) izan da dirulaguntza, eta lanak Jose Maria Jimeno Jurio ikerlearen ikuskapena izan du.

Ez dira bi egileek ikertze lanetan lanbidea bilatu duten horietakoak, ez hamarka lan argitaratutakoak. Bai, ordea, herriaren historia, izaera eta iragana maite dutenetakoak, zer garen jakiteko inguruan bertan ikertu behar dela uste duten horretakoak. Jose Amilibiak soziologia ikasketak egin ditu Euskal Herriko Unibertsitatean eta doktoretza tesia lantzen ari da egun Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Nicolas Arbizuk tokiko historiari buruzko lan zenbait argitaratu ditu *Fontes Linguae Vasconum*, *Principe de Viana* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* bildumetan, eta Iturmendin urtean bitan ateratzen den herri aldizkariaren koordinatzailea da. Horretaz gain, Burundako herriaren alkatea dugu.

Jimeno Juriok eman zituen irizpideei jarraitu dieite bi egileek lana egiteko: Altsasun ezezik Burundan —Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Baikaiku— Erdi Aroan zeuden herriak, garapen ekonomikoa, marka utzi duten pertsonaiak ikertu behar ziren lanean. Artxi- bo lanari ekin zioten, eta lehendabizi Altsasuri buruz argitaratutako guztia bildu zuten. Amilibiak jatorrizko herrien bilduma eta garapen demografikoari buruz ikerketa egin zuten, eta Arbizuk pertsonaien eta ikastetxeen historiari erreparatu zien bereziki.

Lanak 80 orrialde hartu ditu, baina Altsasuko Udalak egin nahi duen argitarapenerako laburtu egin beharko dute nabarmen euskaraz eta erdaraz liburuxka



Lehen garaletatik gaur egun arteko Altsasuko historia dago jasoa lanean.

ANDER GILLENEA

kaleratu nahi du eta erakundeak. Lana ongi dokumentatua dago zenbait arlotan —garapen demografikoa, industriari buruzko datuak—, baina ezinbestez xumea, arlo sobera handia zedatzen zutelako ikerketaren oinarriak. Historia eta ekonomia ezezik ohiturak ere aurreikusita zeuden hasierako proiektuan, baina azkenean egileek kendu egin zuten parte hori, beste monografiko oso baterako nahikoa gai bazegoelakoan.

1208an Antso Azkarrak forua eman zion Burundari, Gipuzkoatik eta Arabatik zetozen erasotzaileengandik defenditu ahal izateko

'Altsasu' 1268an lehendabiziz • Lanak Altsasuko historiari buruz errebaso egiten dio aurrenik, eta bereziki azpimarragarria da Burundako antzinako kokalekuei buruz eginiko ikerketa. Altsasu izena —*Altsassu*— 1268an azaldu zen idatzia lehendabiziko aldiz, gurutzadak eta horrelako gastu berezietarako Elizak ezartzen zuten *rediezmo* izeneko zergaren liburuan. Burunda, ordea, lehenagokoa da, 1105ekoa hain zuzen ere, Leireko monasterioko artxibean dagoen dokumentu batean —testamenduan— jasoa —*Senior Eneco Negula dominante in Essauri el Bazan, et Burunda et in Ermani...*—. 1208koa da bigarren aipua, orduan eman baitzion Antso Azkarrak erregeak forua alderdiari, Gaztelatik —Gipuzkoatik eta Arabatik bereziki— zetozen erasoak eta gudualdien aurrera babesteko. 1290ean 16 ziren zerga ordaintzen zuten tokiak: *Bakaiku, Ituren, Iturmendi,*

Içaga, Urdiain, Zanguitua, Altsasua, Saratsua, Suarve, Urayar, Elturen, Orna, Olazagutia, Anguztia, Arduya-Arquinano eta Ayuça. Handienak ziren *Urdiain, Olazagutia, Ayuça* eta *Urayar*.

Garai nahasia zen arraso inguruarentzat, Nafarroako eta Gaztelako erresumen arteko mugan egonik arriskutsua eta gora-beheratsua zelako bizitza, eta etengabeak zirelako erasoaldiak. Horren ondotik, toki haue- tako gehienak hustu egin ziren

1355ean Luis Printzeak, inguru hobeto babesteko, hiru herri berri —Villadefensa, Villafuerte eta Ugart— sortu nahi izan zituen

hurrengo mendeetan, jendeak ez zuelako inolako babesik Gipuzkoatik eta Arabatik zetozen lapurren aurrean, eta babeslekuak zituzten edo eraiki zituzten herrietan batu ziren. Irurita —Olazti eta Altsasu bitartean—, Etxarri-Aranatz eta Ziordian bazeuden gotorlekuak eta gaztelarrek Eginon eta Etxegaraten zituzten defendatzeko guneak. Kontuen artxiboan jasoa daude erasoetako erantzuna emateko osatzen ziren taldeetarako erregearen gastuak. 1355ean, Luis Printzeak inguru hobeto defenditzeko hiru herri berri sortu nahi izan zituen: *Villadefensa* Olazti ondoan, *Villafuerte* Urdiainen eta *Ugart*, gaur egun Uharte-Arakil dena. Aurreko biek ez zuten arrakastarik izan, eta jendeak ez zituen bete erregearen aginduak. Garai gogor askoa izan zen hau XIV. mendean Burundarentzat, eta XV. ean etorriko da agramontarren eta beaumontarren arteko guda, Ziordiko jauntxoak agramontarren alde egin zuten eta horri esker boterea eskuratu zuen Juan II.aren eskutik. 1512ko uztailaren 21ean Burundatik sartu zen Fernando Katolikoaren Armada, eta Nafarroa gaztelarrekin batzean Altsasuk eta bere inguruak ia ezagutzen ez zuten bakea izan zuten hortik aurrera. Garai honetarako Altsasuk bazuen jada nagusitasuna inguruko herrien inguruan, batez ere, egileek diotenez, bere kokapen apartarengatik.

Historiatik atera gabe, badira lan honetan jasotako hainbat bitxikeria, esate baterako San Pedroko basilikan dagoen leiendari buruzkoa. Jakinaenez, sarre- rako ataburuan, 717. urtean Garcia Ximenez Nafarroako lehen erregea bertan izendatu zutela dioen inskripzioa dago. Ez da aurkitu, ordea, nonbait Gregorio II.a aita santuak izendapena berresteko eman zuen bulda, Burundako artxiboan gordetzen zena, eta beti uste izan da leienda besterik ez zela. Halaxe zuten jasoa egileek lanean, baina Jose Maria Satrustegik ohartarazi zien ez zela gertaera erabat baztertu behar. Mintzoak argitale- txeko Segundo Otazuk aurkitu- tako Nafarroako Historia libu- ruan, 1632an Pedro Agramont Zaldibar notario tuterarrak egi- na, aipatzen delako bulda hori.

Apaiz demokratikoa • Antolamenduan ere zenbait ohar egin daitezke. Burundan, Aranaz eta Arakilen bezala, izan zen joan den mendera arte erakunde bateratua, unibertsitatea esaten zen bezala, edo gaur egun mankomunitatea dei genezakeena. Erakunde honen ardura ziren basoak, larreak eta zelaiak ustiatzea eta defentsa bermatzea, eta bazegoen alkate bat herri guztien artean aukeratuta. Horretaz gain, herri bakoitzak alkatea zuten, eta demokratikoki auke-

Altsasuren
kronika historikoa

ratzen zuten herriko etxeetako nagusiek. Ez ziren batzarrean aukeratzen ziren bakarrak, apaizak ere horrela aukeratzen omen ziren-eta. Lanbide estimagarria zenez, bazen lehia herriko apaiza izateko, eta baldintza bakarra zegoen: euskalduna izatea. Eskaera hori etengabe jasotzen da gure mendera arte Burundako herri guztietan. Esan behar da, bestalde, ez dela aurkitu artxi-boetan Altsasuri buruzko euskarazko agiririk.

Historia ezezik, herriko arkitektura —zibila eta erlijiosoa— ere lanaren beste atal batean aztertzen da, eta garbi parekatzen dira mende honen hasieraren eta gaur egungo Altsasuren arteko aldea. Garapen demografikoari buruz eginiko ikerketa da, nolana ere, sendoenetakoa. Garai ezberdinetan izan ziren gora-beherak eta bilketa lan interesgarriak daude, Altsasun XVII. mendean zeuden abizenena, esate baterako. Hauexek dira: Agirre, Amezaga, Albistur, Aldabalde, Arbizu, Arramendia, Arregi, Arrieta, Arza, Azanza, Bakaiku, Bengoetxea, Beidaka, Zelaia, Etxeberria, Elizalde, Fernandez, Fernandez de Garaialde, Hernandez, Galarza, Gastaminza, Gainza, Goikoetxea, Garaialde, Herbina, Itxaso, Ilardia, Intxaurrondo, Iriarte, Insausti, Larraza, Leiza, Lezea, Lizarraga, Luzuriaga, Mazkilaran, Mendiluze, Mikelez, Muniain, Otxoa, Pascual, Perez, Rekalde, Saez, Saez de Muniain, San Roman, Urdiain, Urbina, Barrena, Zangitu, Zuasti, Zumarraga eta Zufiaurre. XVIII. mendetik aurrera abizen berriak hasi ziren erruz azaltzen bataio-liburuari, Altsasu jende berria jasotzen ari zen seinale. Horrela, gaur egun herrian hain ugari diren deitura batzuk beranduagokoak dira: Izagirre (1733), Gerriko (1737), Oraa (1760), Agirrebengoa (1838), Oiarbide (1867), Urteaga (1870), Aldasoro (1878), Arakama (1888)...

Goikoetxeatarrek entzutetsuak •

Industria, merkataritza eta irakaskuntzaren historiaren ondok, herriko pertsonaien erreferentziak jaso dituzte egileek, Jose Maria Jimeno Jurio *Temas de Cultura Popular* lanean egin zuena oinarritzat hartuta. Historian nolabaiteko izena hartu dutenen artean aipatu dituzte, horrela, Pierres Picart eskultore frantziarra, Altsasun laketu zen-eta 1563an. Oñatiko Unibertsitatearen aitzinaldearen egilea, fama handia izan zuen garaian, eta eliza askotan —Anoeta, Uhart-Arakil, Irañeta, Iruñea...— lan egin zuen. Juan Iriarte eskultoreak —1599an hila— lanak egin zituen Donostian, Oiartzunen eta Hondarribian, eta bere garaikoa zen Juan Ximenez, hau ere eskultorea. Berak egin zuen San Martin Unx elizako erretaula nagusia. Martin Miguel Goikoetxea 1755ean jaio zen Altsasun, eta Madrilen lanean zegoela ezagutu zuen Francisco Goya pintorea. Lagunminak izan ziren, eta biak joan ziren erbesteratuta Bordelera 1823an. Goya 1828an hil zen eta Goikoetxea bi urte geroago, eta biak izan ziren lurperatuak



XIX. mendearen bukaerara arte herri nekazaria izan zen Altsasu.

ARTXIBOKOA

azken honen hilobi familiarrean. Egun Zaragozako Pilarreko Plazan dago artistaren gorpua, eta bere omenez eraikitako oroitarrian aipatzen da altsasuarra eta bere familia. Mende honetakoen artean aipatzen dira lanean Miguel Goikoetxea argazkilaria, Esteban Lasa eta Luis Taberna organo joleak —nahiz eta azken

hau Lesakan jaioa izan, bere bizitza guztia Altsasun eman zuen—, Agustin Gonzalez Acilu konpositorea eta Enrike Zelaia akordeolaria. Altsasuarra zen ere Constantino Salinas politikari sozialista, Diputazioaren orde Errepublikan garaitan jarri zuten Batzorde Kudeatzaileko lehendakaria izen zena.

Martin Miguel Goikoetxea 1755. urtean jaio zen Altsasun, eta Madrilen ezagutu zuen Francisco Goya pintore handia. Biak hilobi berean luperatu zituzten Bordelen

«Benetako historia herriena da»

■ Nicolas Arbizuren ustez, altxor handia dago oraindik artxi-boetan gorderik

A. B. / Iturmendi

AURTENGO jaietarako argitaratu nahi bide du Udalak bi ikerleen lan hau, orain arte zegoen hutsunea gutxienez txikiagoa egingo duena. Jose Maria Jimeno Juriok 1970ean eta 1974an *Temas de Cultura Popular* sailean argitaratutako *Alsasua* eta *Folklore de Alsasua* lanak dira herriari buruz idatzirik bakarrak, eta Satrustegik eginiko lan handiaz eta Karasatorrek Burundari buruz ateratakoek gain, informazio urria izan da orokorrean.

Zerrenda honi gehitu egin behar harko zaio aurrerantzean Amilibiak eta Arbizuk osatutakoa, bertakoek euren historia hobeki ezagutzeko baliokoa izango da-eta. Oso baliokoa, Arbizuren ustez. «Gure kultura, hemengoa, kendu egiten digute. Historia liburuek beti aipatu dituzte lau borroka eta lau errege, baina benetako historia herriena da: nola bizi, nola hiltzen ziren, zer egiten zuten... eta hori ahaztuta dago. Hortik, behetik, hasi behar da hori guztia berreskuratzen, ez goitik, gauza asko nahastu egiten



Nicolas Arbizu eta Jose Amilibia.

GUATXE

direlako bestela».

Egun Iturmendin argitaratzen den *Iturmendi, Herriaren Mintzoa* aldizkari kulturalako koordinatzailea ere bada Arbizu. Zortzigarren zenbakia kaleratu dute aurtengo urtarrilean, eta herriko berriekin batera, etxeko labearen ogia egiten zeneko garaian buruzko artikulua dago, Iturmen-

diko jauregiaren eta itsaslapur batzuek hildako Diego Andres Lezearen berri ematen duten beste bi kontakizunekin batera.

«Horrelako artikulua eta lanek garrantzi handia dute, urte gutxi barru inork ez duelako jakingo ogia nola egiten zen», azpimarratu du Arbizuk. Herri batek eman dezakeen mota honetako infor-

mazio historikoa sobera handia ez dela pentsa litekeen arren, ez da iritzi horretakoa iturmendiarra, eta artxi-boetan oraindik gorderik dagoen altxorraz mintzo da. «Ukitu gabe daude ia. Hemengo asko galdu egin dira suarengatik eta bestengatik, baina egiten zen guztiaren kopia bidaltzen zen gero Iruñera. Lan handia dago beraz, bizitza oso batentzat ia».

Esker txarreko lana dela esatera ausartzen ez bada ere, onartu du euskaldunok ez garela sobera esker onekoak, baina berak hurrengo belaunaldierantz lan egiten duela dio, eta badu ametsa: Bakedanon hasita Iturmendi zeharkatu eta Ataunera iristen zen galtzadaren ibilbidea berreskuratzea. «Honi deitzen zitzaion ferrabidea, mandokin-eta egitekoa zelako. Kontra-bandorako-eta erabiltzen zuten merkatariek, eta ohartu nintzen bere garrantziak ikusi nuenean Iturmendin dauden etxe dotoreenak ibilbide honen urrezko urteetan —XVII. mendean— eraiki zirela. Polita litzateke ibilbide turistiko kulturala egitea galtzada erreperatuta...». X

Xanti Begiristain

Presoak Euskal Herrira

■ Etengabe jarraitzen dute aurrera manifestaldiek, bilkurek, gose grebek eta mota askotako mobilizapenek eskatzeko eta exijitzeko euskal preso politiko guztiak Euskal Herrira ekar ditzaten. Ez dakit noiz arte jarraitu beharko dugun egoera tamalgarri eta atezu honetan, baina dirudenez, oraindik luze joko du arazo eta gatazka hauek erabat konpontzeak. Jende askok bada-kigu egoera zail eta desorekatu honek, konpon-bide osoa lortzeko, zuzentasuna eta justizia beharko litzukeela, hitzarmen on bat eskuratzeko alde guztien artean, eta guztientzat egokia eta iraunkorra. Bitartean hementxe segitu beharko dugu alderdi eta sektore guztietako pertsonok sufrimenduak pairatzen; batzuek handiak eta besteek handiagoak, baina den-denok zerbait jasaten, zuzenean edota zeharka. Hemen ez da inor libratzen.

Bestaldetik, ni konbentzituta nago (eta hau uste dut jende gehienak dakiela) gatazka politiko hau azkarrago irtenbideratzeko oso onuragarria

dela ETak behin baino gehiagotan eskaini eta egin duela su-etena. Beste aldeetakoak zergatik ez ote dira ausartzen, behingogatik baino ez bada ere, proba tinko bat egitera, baldin badaukate presumitzen duten borondate on hori?

ETA sortu zenetik (1959) uste dut, nahikoa baino gehiago demostratu digutela batzuek nola besteek ezin dutela elkar akabatu (nahiz eta GAL, CEN, Batallón Vasco Español, eta abar sortu), ez eta batak besteari bere nahia inposatu, eta alderantziz. Beraz, benetako elkarrizketa eta negoziazioa gertatzen ez diren bitartean, honelako egoera tamalgarrian iraungo dugu mugarik gabe, batzuek batzuei laguntza ematen, besteek besteek sustengua ematen, beste gatzuek guztiengatik lan egiten eta sufritzen, eta azkenik, beste batzuek, beren ustez, gatazka osoari paso egiten, baina azken finean, bizi garen gizartea bat bakarria baino ez denez gero, hemen ondorioak barreiatu egiten dira eta denok ukitzen, zikintzen eta izorratzen gaituzte.



izango litzatekeela, indarririk handiena dutenek emango balute lehenengo urratsa. Honekin, eta argiago adierazteko, esan nahi dut, nire aburuz, inongo zalantzarik gabe lehenbiziko urrats hori edo horiek eman beharko litzuketela Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Poliziak, Guardia Zibilak, Ertzaintzak, eta abarrek. Honekin ez dut esan nahi ETak ematea kaltegarria litzatekeenik, ez, baizik eta logikoagoa iruditzen zaidala lehenengo proposamena; arrazoi xume batzuek, alegia, ETak herri honi dagozkion eskubide demokratiko batzuk emanak ez izanaren erresistentzia errepresentatzen duelako, eta beste erakunde guztiek, aldiz, demokrazia eta zuzenbidearen gordetzailatzat jokatzeko dutelako. Hau, uste dut, adimen pixka bat duen edozein pertsonak uler dezakeela. Gainera, oker ez banago, uste dut egia biribila

Aurreko guztia dela-eta, hemendik azaldu nahi dut, adierazten didala nire elkartasuna euskal gatazka politikorengatik sofrikarioak parratzen ari diren pertsona guzti-guztiei, eta jakina, batez ere txikienei, babes gutxien dutenei, glza eskubide faltarik handiena dutenei, urrutien eta sakabanatuen daudenei, ezagunenei (azken finean denok pertsonak garelako), eta abarrei. Bihoakie bada, nire besarkadarik bihozkorrena, bereziki, besteak beste, Juanjo Zubieta Zubeldia, Xabier Golaratz, Mario Zapata, Imanol Aramburu, Karlos Ezkurra, Juan Miguel Apezetxea, Patxi Artze, Jaime Iribarren, Jon Idigoras, intsumisoei eta abarri (barka dezatela gainerako guztiek).

Bukatzeko, esango dut denok gaudela *kondenaturik* bidean jarraituz Herri honen egiazko bakea gozatu arte. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Juan Antonio
Iza-Zamakola Dimarra
Seguidillen biltzaile eta
beste, eta II

■ Aitzineko astean oreu gaiari harzara atxekituz, 1795. urteari lot gatzuekion orainkoan. Honezkerok ezaguna dugun frai Juan Fernández Rojasek argitaratuak zituen lanen ereduari jarraituz, *Libro de moda en la feria o ensayo de la historia de los Currutacos, Pirracas y Madamitas del nuevo cuño y los elementos o primeras nociones de la ciencia currutaca* izenburuko agertu zuen Madrilen Lisenoren ezizenez. Agidanean irakurlegoa ezin ase gera izanik, gutxira bigarren edizioa kaleratu zuen hiri bereko Blas Romanen moldiztegitik hagituz ezberdina etzen izenburu berri honekin: *Libro de moda o ensayo de la historia de los Currutacos, Pirracas y Madamitas del nuevo cuño adicionado nuevamente con una explicación del origen de esta obra, las graciosas cartas de D. Preciso, repuesta del Currutaco, las ordenanzas currutacas sobre las contradanzas escritas por el Abate Muchitango y una famosa lámina que figura la máquina calzonaria*. Tituluaren luzeak balio du. Hauetan ilustratuen aztura berriei muzin egin barik modernotasun tole zerienei aitziko salakera garatu zuen agustindarrak, bigarren ediziotik aurrerantzean D. Precisoren laguntzaz. Lagunkidetzara apal hauen ostean gurutzada tradizionalista horretan bere oldez iharduteko gauza zelako ustean dimar erretxinak idazki xeberre bat atondu zuen Madrilen zetorren urtean atera zena, *Elementos de la ciencia contradanzaria para que los Currutacos, Pirracas y Madamitas del nuevo cuño puedan aprender por principios a bailar la contradanza por sí solos o con las sillas de su casa*. Ukan zuen arrakastaren lekuko arras tenore laburrean saldu ziren 3.000 ale genituzke. Liburuaren funts sakona agerian utzi nahian, hona hemen adibide asaldagarri bat: *Siendo tan común y aún casi indispensable en nuestras madamitas contradanzantes del nuevo cuño el tener las piernas gordas, torcidas o zambas y el pie chato, calloso y disforme, ha sido necesario señalarlas el uso del guardapiés con cola para que tape todos los defectos bajos, como que fue traje inventado con este solo objeto, encargándolas que al empezar el baile se cojan atrás un par de pliegues con un lazo de cinta de color acelga cocida para que no se pisen las colas unas a otras*. Nolanahi ere, Iza-Zamakolaren lanik garrantzitsuenak apailatu zuen herri musika eta dantzen bilduma genuke dudamudarik gabe, hau da, *Colección de las mejores coplas de seguidillas, tiranas y polos que se han compuesto para cantar a la guitarra con un discurso sobre la belleza y gracia del baile de las seguidillas* betiereko D. Precisoren izenean.

Edozein modutan ere bizkaitar honek izkiriatu oro etzen gai hauen barruan kokabeharrekoa edota gaitzizen desitxuroso horrekin bakarrik sinatzen, bestelako lanak benetako izenarekin agertu baitzituen, berbarako 1806.ean bere lanbiderekin loturik zegoen *Práctica de los juzgados del reino y resumen de las obligaciones de todos los jueces y subalternos, para instrucción de los jóvenes que se dedican al estudio de las leyes, y enseñanza de los litigantes, escribanos, procuradores, agentes y demás oficios y clases de estado* Madrileko Joaquín Ibarrenean karrikaratu zuena, kazetetan iragarri agertu zen bost liburukitako bildumaren lehendabiziko alekia hain zuzen ere.

Jose Bonaparte errege berriarekin Jose Antoniok funtzionari jarraiki zuen. Gerra amaitu zenean frantsesen alde lan egin izana salapean erbesteratu zen eta Biarnoko lurretatik ibili ostean Gers aldeko Auchen kokatu zuen bizitokia 1817. urterako gutxienez. Bertako Duprat irarkolan lan famatu hau eman zuen moldeetara: *Historia de las naciones vascas de una y otra parte del pirineo septentrional y costas del mar cantábrico desde sus primeros pobladores hasta nuestros días, con la descripción, carácter, fueros, usos, costumbres y leyes de cada uno de los estados bascos que hoy existen*. Azkeneko idazkia, hil ondoko lana naski, 1822.ean bere seme batek agertu zuen Bilbon, *Reflexiones analíticas de la lengua bascongada* izenburupean. ■




Nafarroako Banakako txapelketako zaspigarraren jardunaldiko partida, 1996ko martxoaren 9an jokatu.

Rafael Ruiz Escobar 2.010 ELOkoa — Unai Garbisu 2.370 ELOkoa.

1.d4,f5; 2.g3,Zf6; 3.Ag2,g6; 4.Zh3,Ag7; 5.0-0,0-0; 6.b3,Ze4; 7.Ab2,Zc6; 8.c4,d6; 9.bZ-d2,e6; 10.Gc1,De7; 11.Dc2,d5; 12.Zb1,Zb4; 13.Aa3,c6; 14.Dd1,a5; 15.Ze5,Gd8; 16.De1,Dc7; 17.d5,e-d5; 18.f3. Ikus koadroa. Txuriek hutsunea utzi dute. Beltzen ordua da. 18...,Db6. 'Ae5' eta 'Zd3' arrisku kontrolae-

zinak dira. 19.e4,Dd4 xa; 20.Eh1,De5; 21.d5,Zd5; 22.Gd1,Ge8; 23.e4. Posizioa zaila bazen ere, peoia defendi zitekeen. 23...,e4; 24.Zd2,Ag4; 25.Zc4,De6; 26.Gc1,Zb4; 27.Zb6,aG-d8; 28.Ab4,b4; 29.Gf4,Ah6. Beltzen ikuspegia ederra da, partida modu harri-garrian biribiltzeko.

30.Ge4,Ac1; 31.Ge6,Ge6. Txuriek etsi egin zuten. Bestela, 32.Db4,Gd1 xa; 33.Af1,Af3 xa; 34.Eg1,Ae3 xa mate. Beste -bukaera: 32.Df2,Gd1 xa; 33.Af1,eG-e1; 34.Dc5,Af3 xa; 35.Eg1,Gf1 xa mate.



Tafalla kirolaren hiriburu

Tafallako Kirol Hiria izanen denaz bilera egin ondoren, aurreproiektua prest dauka esku artean Udalak

Tafallako Kirol Hiria izanen denaz eztabaidatzeko bilera egin zuten joan den astean Tafallako Udaleko arduradunek zenbait kirol federazioetako ordezkariekin. Oraingoan, hala ere, aspaldiko asmoa denaren aurreproiektua baino ez du Tafallako Udalak esku artean. Finantza bidea da egun duen arazo nagusia eta hori konpontzeko Nafarroako Gobernuarekin harremanetan dira Tafallako arduradunak

Edurne Elizondo / Iruñea

TAFALLAKO Kirol Hiriaren asmoa aspaldikoa da. Lehenengo eztabaidak orain dela sei urte izan ziren baina Udalak bere gain hartu behar izan dituen beste hainbat proiektuak bazter batean utzi dute asmo hau behin eta berriro. Joan den astean, ordea, azkenaldian egindako lanaren lehen emaitzak ikusteko aukera eskaini zieten Tafallako Udaleko ordezkariak hainbat kirol federazioetako lehendakariak. Iruñeko Kirolaren Etxean bildu ziren horietako batzuk Tafallako Udalak oraingoan esku artean duen proiektuaren aurrerapena aztertzeko asmoz.

Pablo Bolea Tafallako Udaleko Kirol koordinatzaileak eman digu

Pablo Bolea: «Nafarroako belodromo estali bakarra izanik, funtsezkoa izanen da bertako eta baita kanpoko txirrindularientzat ere»

orain arte egindakoaren berri. Izan ere, Udaleko teknikariak lehendabizikoz esku artean izan zuten proiektuaren eta joan den astean Kirolaren Etxean aurkeztutakoaren artean ezberdintasun nabariak baitaude.


Proiektu ororen oinarri egun Tafallak estali gabe duen belodromoa izan da beti. Eduki bai, baina gutxi erabili, Pablo Boleak azaltzen duenez: «% 15 baino ez da erabiltzen». Datu hori aintzat hartuz, egun dagoena errentagarri egin nahi izan dute Tafallako Udaleko arduradunak hasieratik. Horretarako bi aukera aztertu zituzten: belodromoaren ondoan kiroldegi bat eraiki, alde batetik, edota belodromoa estali eta barruan kiroldegi egin.

Aukerak aztertu eta eztabaidatu ondoren bigarren aukera jo zuen Tafallako Udalak egokitzen. Abiapuntua hori izanik, Tafallako Kirol Hiria izan daitekeena eraiki du —paperean baino ez oraingoan— Tafallako Udalak: txirrindularientzako pista, patinaje pista, eskubaloia, futbito eta abarrentzako 40x20ko pista, saskibaloian aritzeko lau pista, pilo-



Tafallako Udalen aspaldiko asmoa da Kirol Hiria egitea.

ARTXIBOKOA



Tafallakoa Nafarroako belodromo estali bakarra izanen da.

OSKAR MONTERO

Gobernuaren dirulaguntzaren zain

TAFALLAKO Kirol Hiria egiteko 850 milioi pezeta inbertitu beharko dira. Oraingoan, Nafarroako Gobernuarekin hitzartutako 317 milioiko dirulaguntza baino ez du lortu Tafallako Udalak. Beste laguntzarik lortu ezean, gainontzekoa Udalak berak ordaindu beharko du.

Udalak hasierako dirulaguntza igotzeko eskatu dio Nafarroako Gobernuari, proiektua handitu denez inber-

tsioa ere handitu delako. Hori egitea, ordea, ez da, antza, baxterre erraza. Nafarroako Gobernuaren teknikaria den Ricardo Ruanorekin mintzatu gara gai honetaz. Argi azaltzen da bera auzi honi dagokionez: «317 milioiko inbertsioa Tafallako Udalak aurreko Gobernuarekin proiektu jakin bat egiteko hitzartutako dirulaguntza da. Belodromo estali eta bertan kiroldegi egitea zen proiektu

haren funtsa. Orain berriz, nahiz eta ofizialki proiektu berriaren azalpenik ez dugun izan, eraikuntza gehiago egin nahi dituzte. Proiektua erabat aldatu da». Hori dela eta, dirulaguntza besterik gabe igotzea zaila dela azpimarratzen du Ruanok. «Beste proiektu bat bada, horrentzat beste dirulaguntza eskatu beharko du Udalak».

Nafarroako Gobernuarekin dirulaguntza

negoziatzen ari da, beraz, Tafallako Udala, baina oraindik ez dute inolako erabakirik hartu. Patxi Perez zinegotzia baikor ageritzen da eta Ruanok bezala argi ikusten du berak kirol hiriaren auzia: «Nafarroako Gobernuari dagokio berau eraiki ahal izateko hasierako inbertsioa egitea. Egin ondoren, berriz, Udalen ardura izanen da horren mantenimendua».

talekua, igerileku estalia, bi gimnasio, squash, kafetegia, aldage-la, gordailuak, erizaintza eta bilkura gelak. Halako eraikuntza egin ahal izateko 850 milioi pezetako inbertsioa beharko litzateke. Oraingoan, hala ere, Nafarroako Gobernuak emandako 317 milioiko dirulaguntza baino ez du Tafallako Udalak. Hori dela eta, Udalak ahalik eta gutxien ordaintzeko asmoz, Kiroletako Kontseilu Nagusiaren laguntza lortu nahi dute bertako arduradunak.

Nafarroako belodromo estali bakarra

• Kiroletako Kontseilu Nagusiaren laguntza lortzeko antolatu zuen Tafallako Udalak, hain zuzen, joan den asteke bilera. Bertara 32 kiroletako federazioetako lehendakariak gonbidatu zituzten. Denak ez ziren agertu, baina Tafallako Kirol Hirian egin ahal izanen diren kiroletako ordezkari nagusiak Kirolaren Etxean izan ziren, besteak beste, pilota, txirrindularitza, patinajea, igeriketa, saskibaloia eta mendi federazioetako ordezkariak.

«Gure asmoa proiektua nolako izanen den erakustea izan da, eurek ere euren proposamenak egin ditzaten. Horrekin batera, federazio bakoitzak Kontseilu Nagusian izan dezakeen eragina bilatu dugu», azpimarratzen du Pablo Boleak.

Aipatzen duenez, paper gainean ikusitakoarekin pozik gelditu ziren federazioetako kideak, txirrindularitza eta patinajea batez ere. Azken honi dagokio-

Pablo Bolea: «Nafarroan daude Estatuko kirolari onenak eta Tafallan pista estalia edukitzea oso onuragarria izan daiteke»

nez, hain zuzen, «Nafarroan daude Estatuko kirolari onenak eta Tafallan pista estalia edukitzea oso onuragarria izan daiteke». Gaur egun Barañainen dago patinajea egiteko pista estali bakarra, baina ikusleentzako harmailak estali gabe gelditzen dira. Txirrindularitzari dagokionez ere, belodromo estaliak izan dezakeen garrantzia azpimarratzen du Pablo Boleak: «Nafarroan egongo litzatekeen bakarra izanen litzateke eta Espainiako Estatuko laugarrena. Beraz, Tafalla inguruko txirrindularientzat ezezik, Nafarroa osokoentzat eta kanpokoentzat ere funtsezkoa izan daiteke».

Federazioetako ordezkariekin bildu eta gero, euren proposamenen zain gelditu da Tafallako Udala oraingoan aurreproiektua baino ez dena proiektu bilakatzeko. Hori lortuta finantza bidea ziurtatzea baino ez litzateke geratuko. Behin proiektua onartuta urte honen amaieran edo 1997. urteko hasieran hasiko lirateke lanak. Boleak dioenez, 18 hilabete beharko litzateke langileak bukatzeko. X

◆ Ana Isabel Aliende ◆ Soziologoa

«Foruak dira gure gizartearen muina»


Ana Isabel Aliende NUPeko irakasleak 1841etik 1936ra bitarte Nafarroan izan ziren prozesu sozialak aztertu ditu bere tesian ('Foruak eta erlijioa Nafarroaren nortasun kolektiboaren oinarritzko elementu gisa'). Ikerlanaren ardatza foruak dira, «foruak direlako gure gizartearen eta nortasunaren muina».

Ana Unanue / Iruñea

LEHEN guda karlista (1833-39) amaituta, Madrilgo Gobernuak foruak aldatzera behartu zuen Nafarroako Diputazioa. Aldaketak 1841eko legean gelditu ziren jasota. Lege hori da, hain zuzen ere, Alienderen azterketaren abiapuntua.

■ **Historialariak ez datoz bat guda karlistaren arrazoez. Batzuek foruen defentsa azpimarratzen dute. Beste zenbaitek, berriz, erlijioarena.**

Egia da karlistek foruak aldarrikatzen zituztela, baina liberalek eta tradizionalistek ere bere egin zuten aldarrikapen hori. Nik 1841eko legea hartu nuen abiapuntutzat foruak, zentzu zehatz batean, lege horretan jasota daudenak direlako. Guda karlistaren ondoren Nafarroako foruak 1841eko legearen 26 artikuluetan ageri direnak dira. Eta luzaroan mantentzen dira zerikus handia dutelako eguneroko bizimoduarekin. Soldadutza, zergak eta eguneroko beste hainbat kontu foruei lotuta daude. Foruak karlistek edo liberalek defendatzen dutenaz haratago doaz, Nafarroako gizartearen egituratzen duten datza dira. Hori argi eta garbi usten da mende amaieran. garren guda karlista amaitu da, eta Nafarroak izugarriko krisia bizi du. Alde handia dago eskualde batetik bestera eta, mendeak aurrera egin ahala, eskualdeen arteko enfrontamenduak areagotuz doaz. Barne zati-keta oso latza da, eta, horretaz jabeturik, Diputazioa sistema ekitatibo bat arautzen saiatzen da, eskualdeen egoera desberdi-



Urtarrilaz geroztik NUPeko Soziologia Departamentuan dago Aliende.

OSKAR MONTERO

nak aintzat hartuta. Horrek enfrontamendua larriagotzen du. Giro nahasi horretan iristen da Gamazo Hazienda ministroa, Nafarroak Estatuari ordaintzen dion kupoa handituko duela mehatxu eginez. Eta zer gertatzen da orduan? Barne enfrontamendua batasun bihurtzen dela kanpoko etsaiari aurre egiteko. Foruak eta Diputazioa —foruak gordetzeko betebeharra duen erakunde bezala— gure komunitatea egituratzen duten elementuak bihurtzen dira orduan.

■ **Foruak 1841eko legean jasota daudenak direla diozu, baina beste batzuek diote lege horren eraginez Nafarroa Estatuak beste probintzien pare gelditu zela. Bere berezitasunak 1841ean galdu zituela, alegia.** Balorazio guztiak gerora egiten dira, bakoitzak aldarrikatu nahi duenaren arabera ganera. Ni ez naiz horretan sartzen. 1841eko legea dena da, edo ezer ez da. Artikuluak oso laburrak eta zehatz gabeak dira berez. Horregatik, Diputazioari dagokio legeari edukia ematea. 1841etik au-

rrera Diputazioak banan-banan borrokatuko ditu legearen artikulua, horiek edukiz betetzeko. Horretarako Estatuaren ahulezia eta artikuluen anbiguotasunaz baliatuko da. Baina legeak berak ematen dio azken finean borrokatzeko ahalmena Diputazioari. 1936 arte horretan dabil Diputazioa. Gero, Francoren garaian, sekulako prerrogatibak lortuko ditu foru erregimenak. Foru Zuzenbide guztia, adibidez, frankismoan finkatu zen.

■ **Hauteskunde kanpainen polemika bizia egon zen norbaitek foruak pribilegio frankistak zirela esan zuelako.**

Pribilegio frankistak? Bai eta ez. Egia da Francoren garaian inoiz izan ez genituen prerrogatibak lortu zirela, baina foruak hori baino gehiago dira, gizartearen muina dira. Horregatik harrotu zuen hainbeste hauts norbaitek hori esateak. Foruak ukitzea geure nortasuna ukitzea delako, Nafarroaren nortasuna Espainiako Estatuaren eta Euskal Autonomi Elkartearen aurrean. Foruak besteengandik bereizteko

erabili izan dira beti. Trantsizio garaian, esate baterako, EAetik bereizteko egin zen Foru Hobe-kuntza. EAeko herrialdeek ere bazituzten foruak, jakina, baina nazionalismoaren ondorioz beste bide bat hartu zuten.

■ **Eta erlijioak, zer eragin izan zuen zuk aztertu duzun garaian?**

Erljioarena oso gai konplexua da. Nire ikerlanean ikusi dut foruak, azkenean, sakratuak bihurtzen direla. Mende amaierako idatzi eta aldarrikapen guztietan eskubide foralak eskubide sakratuen pare agertzen dira, Jainkoa bera dira. Kontuan izan behar da garai hartan, Vatikanoko Kontzilioaren ondoren, Elizak onesten duela jendearen bizimodua, arlo guztietan: egutegia, jaiak, lana... Dena erlijioaren galbahetik pasatzen da, eta foruek ere gauza sakratuen ezaugarri guztiak hartzen dituzte.

■ **Eta horrek guztiak zer aztertu utzi ditu gaur egungo Nafarroan? Foruak ez al dira erretorika huts bihurtu?**

s o s l a i a

Duela 35 urte Iruñean sortua, Ana Isabel Aliende Filo-sofian lizentziatua da. Urtarrilean Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia Departamentuan sartu zen irakasle, eta gaur egun Merkataritza Kudeaketa eta Marketin Eskolan ere irakasten du.

Lau urte eman ditu Ikerlanean bere tesia egiteko. Horretarako Nafarroako Gobernuaren beka bat izan du. Bera hasi zenean ez zegoen doktoretza programarik Soziologian, eta Euskal Herriko Unibertsitatean egin zuen bere tesia, 'apto cum laude' kalifikazioa izan duena.

Nafarroa, berak dienez, oso interesgarria da ikerketa soziologikora, orain arte Opuseko unibertsitatea besterik eduki ez dugunez, ikerketa zientifikoa oso mugatuta egon baita. Egin diren ikerketa gehienak Estatutik edo EAetik egin dira, ez hemendik bertatik.

Gaur egungo Nafarroa ezin da bere iragana gabe ulertu. Denek atzera jotzen dute legitimitate bila. Gaur egun gizarte konplexuetan ageri diren beste elementu asko ditugu, gizarte sekularizatuago dago, botereguneak beste-lakoak dira... Baina, hala ere, foruak funtsezkoak dira jendearentzat. Nafarroan dena, komunitatea bera, Polizia, legeak, aginduak... foralak dira. Eta Juan Cruz Allik, artean UPNn zegoela, foralismoa berritu egin behar zela, nazionalismo nafar bihurtu behar zela esan zuenean, sekulako polemika sortu zuen, gizartearen muina ukitu zuelako. Allik foralismoa iraganeko kontua zela eta nazionalismorantz joan behar genuela zioen, baina ez zuen aurrera egin. Horrek zerbait adierazten digu. Foruak diskurtso ideologikoz haratago doazela, hain zuzen. Behetik, oinarritik, eratu ziren, ez zituen elite batek inposatu. Horregatik irauin dute hainbeste, jendearen bizimoduarekin eta errealitatearekin zerikusia izan dutelako.

P A N E
LUCRANDO

ZALDI EROA

